

# BESTELAKO XEDAPENAK

## SEGURTASUN SAILA

### 1872

*EBAZPENA, 2019ko apirilaren 8koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua aldatuko duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko dena.*

Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren erregelamendu orokorra aldatzen duen dekretu-proiektua prestatu du Segurtasun Sailak, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu behar da proiektu hori.

Xedapen orokorrek herritarren eskubide eta interes legitimoei eragiten badiete, entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute, betiere 8/2003 Legearen 8.1 artikularekin bat etorritz; eta euren izaera dela eta beharrezkoa bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Horren ondorioz, proiektua jendaurrean jarriko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikularekin bat etorritz, eta hamar egun baliouduneko epea egongo da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Azaldutako guztiarengatik, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuaren 11.2.a) artikularekin bat etorritz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua aldatuko duen dekretu-proiektua, hamar egun baliouduneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko asmoz, proiektuaren edukia Segurtasun Sailaren Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzan egongo da eskura (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz), bai eta euskadi.eus webgunean ere, alegia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 8a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,  
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.